

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2020ko otsailaren 3ko 42 zk.dun Alkatetza-Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, 2020 urtean Zigoitia udalerrian kulturaren, kirolaren eta gizartearen esparruko jarduerak antolatzeko diru-laguntza deialdia egin da, norgehiagoka bidezko lehiaketa-prozedura bidez

BDNS (Identif.): 495182

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat eginez, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsultatu daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke:

– Irabazi asmorik gabeko entitateak, publikoak edo pribatuak (hala-nola, kulturaren, kirolaren eta gizartearen esparruko elkarteak, taldeak, fundazioak), legez eratuak eta Zigoitiko Elkarte Udal Erregistroan inskribatuak.

– Era berean, diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke irabazi asmorik gabeko elkarteak, beren eragin-eremua Zigoitia udalerrira bada, beren egoitza soziala udalerrira horretan ez badago ere. Erakunde horiei honakoa eskatuko zaie: Euskal Herriko Elkarte Erregistro Orokorrean, edo Euskal Herriko Kirol-erakunde Erregistroan inskribatuta egotea.

– Zigoitia udalerriko Kontzejuak.

Bigarrena. Helburua

Diru-laguntzaren helburua hau da: kulturaren, kirolaren eta gizartearen esparruko jardueren antolakuntzak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, Zigoitia udalerrian lurralde-eremuan egiten direnean, beren izaeragatik, eta behar bezala arazoituta, udalerrian lurralde-eremutik kanpo egiten direnez gain.

Diruz lagungarri izango dira kulturaren, euskararen, aisialaren eta kirolaren esparruko jarduerak, eta lehentasuna izango dute honako programek:

Zigoitia udalerrian gizarte ongizatea sustatzen dutenek.

Euskararen erabilera bultzatzen dutenek.

Herritarren parte-hartzea bultzatzen dutenek.

Udalerrian sustapena.

Kultura eta kirola orokorra, eta bereziki bertakoa, sustatzen dutenek.

Genero berdintasuna eta genero-rolen deuseztapena bermatzen duten programa edo ekintzak sustatzen dituztenek, eta kolektibo behartsuen edo bazterkeria-arriskuan daudenen parte-hartzea bermatzen dutenek.

Bertako tradizioak berreskuratzea bultzatzen dutenek.

Ingurumenarekiko sentsibilizazioa sustatzen dutenek.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza hauen kontzesioaren oinarri arautzaileak hemen daude jasota: kulturaren, kirolaren eta gizartearen esparruko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak emateko Ordenantza espezifikoak, 2018ko abenduaren 19an onartua, eta ALHAOren 29 zenbakian argitaratua 2019ko martxoaren 8an.

Diru-laguntza hauek emateko prozedura, norgehiagoka bidezko lehiaketaren erregimenaren menpeko izango da. Aurkeztutako eskaeren konparaketa egingo da, eta eskaeren lehentasunaren arabera ordena ezarriko da, deialdi honetan zehaztutako balorazio-irizpideekin bat eginez. Esleipena, hurrengo puntuan zehaztutako muga kontuan hartu eta aipatutako irizpideak ezarrita balorazio handiena jasotzen dutenentzat egingo da.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honetan ezarritakoa betez aurkeztutako eskaeren arabera emandako diru-laguntzen finantzaketa honako aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio: 2020ko aurrekontuaren 334.481.001 zenbakiduna, "Gizarte eta kultur jardueretarako diru-laguntzak" izena duena, eta 341.481.000 zenbakiduna, "Kirol jardueretarako diru-laguntzak" izena duena.

Deialdi honetako laguntzen gehienezko zenbateko osoak honakoak dira: 20.000 euro 334.481.001 aurrekontu-aplikazioan, eta 15.000 euro 341.481.000 aurrekontu-aplikazioan, 2020ko ekitaldiko aurrekontuarekin bat eginez.

Udalak, gehienez ere, diruz lagundu daitekeen programaren kostu osoaren ehuneko 80 finantzatu ahal izango du gehienez ere.

Hala ere, Udalak trataera berezia eman ahal izango die zenbait programari, udalerrientzat interes berezikoak badira, eta programaren kostuak dakarren defizitaren ehuneko 100era iritsi ahal izango da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Urteko programetarako eskaerak, zazpigarren puntuan jasotako dokumentazioarekin batera, aurkezteko gehienezko epea 2020ko martxoaren 27a izango da.

Izaera puntualeko jardueretarako eskaerak aurkezteko gehienezko epea, programatutako jarduera hasi baino hilabete lehenago amaituko da, eta, beti ere, 2020ko urriaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Eskaerarekin batera, honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

Eskabide ofiziala, Udalak emana.

Formulario ofiziala. Programako formulario bat bete beharko da (gehienez, 4 programa).

Diru-laguntzak emateko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa, ordenantzaren 8. Artikuluan jaso bezala.

Zigoitia udalerritik kanpora egoitza soziala duten irabazi asmorik gabeko erakundeek kantuan bakarrik: estatutuen fotokopia, eta erakundea Euskal Herriko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo Euskal Herriko Kirol-erakundearen Erregistroan legez inskribatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa. Baldintza honetatik kanpo geratzen dira, aurreko deialdietan dokumentazioa aurkeztu duten erakundeak, ez badute, tarte horretan, estatutuetan aldaketarik egin.

Seigarrena. Justifikazioa

Diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek 2021eko otsailaren 1era arteko epea izango dute justifikaziorako dokumentazioa aurkezteko:

Memoria-likidazioa, ondorengo datuak jasota dituenak:

Jarduera: helburuen deskribapena eta ebaluazioa, erabilitako giza-baliabideak eta baliabide materialak, kokalekua, denboralizazioa (datak, ordutegia).

Hala badagokio, genero berdintasuna lortzeko jardueraren edukia eta ebaluazioa.

Hala badagokio, jarduera euskaraz egin izanaren egiaztapena.

Hala badagokio, udal programetan parte hartu izanaren egiaztapena.

Parte-hartzaile kopuruaren egiaztapena, sexuaren arabera bereizita.

Likidazio ekonomikoa: zehaztu gastuak eta sarrerak.

Programan parte hartzea sustatzeko egindako zabalkunde publikoaren egiaztagiria.

Ez dira diruz lagunduko, programaren eskaintzaren publizitatea egin dela egiaztatzen ez diren jarduerak, publiko zabalari zuzenduta badaude.

Diruz lagundutako gastuen egiaztagiria, fakturen eta ordainagirien kopien bidez.

Programen aleak, hala badagokio. Bertan, Zigoitiko Udalaren babesletzaren aipamena egin beharko da.

Ondategin, 2020ko otsailaren 7an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA